

**Arartekoaren ebazpena, 2012ko uztailaren 17koa. Honen bidez, amaitutzat ematen dugu Urdulizko Udalak hainbat hirigintza-salaketari erantzun ez dielako aurkeztutako kexaren inguruan egin dugun esku-hartzea.**

### **Aurrekariak**

1. Pertsona batek Arartekora jo du, eta gure iritzipean jarri du Urdulizko Udalak emandako erantzuna, (...) auzunean obra-hondakinak pilatzen ari direla-eta aurkeztutako salaketen ingurukoa.

Zehazki, erreklamatzailleak adierazi digu 2005. urtetik ari dela salatzen (...) auzuneko hondakin-biltegia, (...) zenbakien inguruneko lurren profila aldatu duela eta.

Pertsona horrek bere erreklamazioan bidalitako informazioan adierazi zigunez, Urdulizko Udalak 2005eko maiatzean jakinarazi zion hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko espediente bat hasiko zuela. Geroago, 2007ko maiatzean, Udalak jakinarazi zion jadanik izapidetu zuela hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko espedientea eta —2007ko maiatzaren 9ko dekretuaren bidez— zura biltegiratzeko jarduera eteteko agindua eman zuela, hirigintzako antolamenduaren aurkakoa zela eta. Horrez gain, adierazi zuen, obra-hondakinen pilaketak lurraren profilean eragindako aldaketari dagokionez, udaleko zerbitzu teknikoei ikuskapen bat egin zezaten aginduko zitzaieela.

Erreklamazioaren arrazoia da, erreklamatzailleak baieztatzen duenez, lau urte baino gehiago igaro badira ere ez dela hartu salatutako egitateen aurkako neurri zehatzik. Halaber, adierazi du hondakinen pilaketaren dimentsioak handitu egin direla eta praktikan zabortegei bat dela. Hori horrela, 2011ko abuztuaren 24an, berriro ere salaketa bat egin du Urdulizko Udalean.

2. Erreklamazio hori tramiterako onartu ostean, 2011ko abuztuaren 26an bidalitako idazkiaren bidez, Urdulizko Udalarari eskatu genion bidal zezala erreklamazio hori aztertzeko beharrezko informazioa eta dokumentazioa. Zehazki, eskatu genion jakinaraz ziezagula Udalak zer neurri hartu zituen erreklamazio horretan aipaturiko jarduerak hirigintza eta ingurumen arloko legea beteko zuela bermatzeko eta, hala bazegokion, biltegia zabortegei edo betegarritzat hartzen ote zen. Horrez gain, adierazi genion aurkeztutako salaketari zer erantzun eman zioten jakin nahi genuela.

Udalak gure informazio eskaerari erantzun ez zionez, 2011ko azaroaren 10ean errekerimendu bat bidali genion.

Bestalde, erreklamatzailleak jakinarazi zigun 2011ko abenduan planteatutako arazoa konpondu gabe zegoela oraindik. 2011ko abenduaren 22an, beste idazki bat sartu zuen Udalean, baloratu gabe zeuzkan gaiak gogorarazteko, batez ere hondakin-pilaketaren ingurukoa eta beharrezkoa zela neurriak hartzea higiene eta osasungarritasun baldintza egokiak bermatzeko, karraskariak ugaritzen ari zirenez gero.

Geroago, 2012ko otsailean, Urdulizko Udalarekin jarri ginen harremanetan, informazioa eskatua geniola gogorarazteko. Udal zerbitzuek adierazi ziguten bazela txosten bat egina eta hurrengo egunetan bidaliko zigitela informazio hori. Txostena bidaltzeko aurreikusitako epea ondo igaro zelarik, berriro ere gure eskaera gogorarazi genion, 2012ko ekainaren 4ko ohartarazpenaren bidez.

3. Hori horrela, pentsatu behar dugu, lehenengo eskabidetik gaur arte 10 hilabete baino gehiago igaro direlarik, Urdulizko Udalak ez duela bete gure eskabideari erantzun formala bidaltzeko duen betebeharra.

Hori guztia kontuan izanik, gure epaitze-parametroekin bat etorritz eta daukagun informazioa kontuan izanik, ondoko gogoetak jakinarazten dizkizut:

### **Oharbideak**

1. Erreklamazio honen xedea da planteatzea Urdulizko Udalak ez diela erantzun Dobaran auzunean obra-hondakinak pilatzeagatik behin eta berriz aurkeztutako salaketei eta alde hori garbi edukitzeko eskabideari.

Erreklamatzailleak adierazi digu Udalak zer jarduketa egin zituen 2007an zura biltegitartzeko jarduera horretan hirigintzako legezkoatasuna berrezartzeko. Urte hartan, Udalak bazuen asmoa obra-hondakinen pilaketagatik jarritako salaketak ikuskatzeko eta egiaztatzeko.

Alabaina, erreklamatzailleak ez du izan geroztik hirigintza eta ingurumen aldetik kontrolatzeko egindako ezein administrazio-jarduketaren berri, nahiz eta aurkeztu diren berariazko salaketak eta eskabideak, hala nola 2011ko abuztuan sartutakoa.

Erakunde honek ere ez du jaso Udalak salaketei erantzuteko egindako jarduketei buruzko informaziorik, udal zerbitzuek 2012ko otsailean aipaturikoa izan ezik.

2. Abiaburu gisa, gogoratu behar dugu interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek. Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.

Administrazio izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator –103.1 eta 105. artikulua- eta Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen baitakoak dira.

Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Hizpide dugun kasuan, Udalak hainbat jarduketa egin zituen 2007. urtean, zura biltegitartzeko jardueraren hirigintza legezkotasuna berrezartzeko eta obra-hondakinen pilaketatik jarritako salaketak egiaztatzeko.

Alabaina, Udalak gerora jarduketarik egin duenik ez dago inon jasota, edo behintzat ez zaizkio jakinarazi salaketa-jartzaileari, nahiz eta behin eta berriz aurkeztu dizkion errekerimenduak eta gogorarazteko idazkiak Urdulizko Udalari (batez ere 2011ko abuztuaren 24koa eta abenduaren 22koa).

Herritar horren erreklamazioari erantzun formalik ez emateak administrazio horren funtzionamendu txarra islatzen du, Ararteko erakundeak salatu behar duena.

Hori dela eta, azpimarratu behar dugu Urdulizko Udalak erantzun egin behar diela aurkeztutako salaketei eta, kasu horretan, erreklamatzailari jarraitutako jardueren berri eman behar diela

3. Bestalde, erreklamazioaren xedea zen Udalari eskatzea betearaz zezala hirigintzako legea zura biltegitartzeko jarduera horretan eta egiazta eta berma

zezala aipaturiko lurzatia osasungarritasun eta higiene baldintza egokietan edukitzeko betebeharra betetzen zela.

Hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek jardueren kontrolean eta hirigintzako antolamenduak arautzen dituen egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena dute, hirigintzako ikuskapenak eginda eta hirigintzako lizentziak emanda.

Hain zuzen ere, hirigintzako diziplinako ahalmenei ezin diete uko egin agintariak eta funtzionarioek, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak agintzen duenez. Zehazki, hau adierazten da bigarren idatz-zatian:

*“Titulu honetan araututako ahal ez baliatzea utzinezina da. Ondorio horretarako, agintariak eta funtzionarioak ahal horiez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzerara behartuta daude, kasuan kasu emandako epeen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna sortuko du.”*

Erantzuteko eta hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharra salatzailearen eta salatutakoaren artean egon litezkeen balizko liskarretatik bereizi behar da. Hirigintza lizentzien ezaugarrietako bat euren izaera neutroa da, egoera edo eztabaida juridiko-pribatuak alde batera utzita ematen dira, izan ere, aldean arteko diferentziak hirigintza izapideetatik kanpo geratu behar dira.

Hirigintzako diziplina eta ikuskaritzako ahalmena halabeharrez lotuta daude udal planeamendua eta hirigintzako legeria betetzearekin. Partikularrek ez jarduteak ez du hirigintzako legezkotasuna defendatzeko funtzio publiko hori kaltetu behar.

Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak hasi eta izapidetu behar ditu.

Obra batzuek lizentziarik ez dutela-eta salaketaren bat aurkezten bada, Udalak ezkutuko jarduerak legeztatzeko espedienteak abiarazi eta sustatu behar du ofizioz, 2/2006 Legeko 221. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorriz. Prozedura horrek ezartzen du, lanak amaituta badaude, epe bat ireki behar dela lizentzia eskaera aurkezteko eta administrazio ebazpena emateko. Ezin dela legeztatu adierazten bada, erabaki berean, eraistea eta erabilerak behin betiko etetea aginduko da (2/2006 Legea, 221.6 artikulua).

Horren arabera, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, hirigintzaren inguruan agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak izapidetu behar ditu.

Halaber, adierazi behar da lur eremuen jabeek horiek segurtasun baldintza jakin batzuetan mantendu behar dituztela, osasungarritasunean eta apaingarri publikoan kalterik ez eragiteko eta pertsonak eta gauzak arriskuan ez jartzeko.

Betebeharra jabearena da, lurrarekiko titulartasunaren arabera. Nolanahi ere, udal administrazioaren eskumena da betebeharra betetzen dela bermatzea, dagokion espedientearen bidez, eta, bidezko txosten teknikoak lortu ondoren, dagozkion betearazpen aginduak ematea.

Ahalmen hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulua ezartzen du. Lurren jabeek segurtasuna, osasungarritasuna, apaintasun publikoa eta itxura mantentzeko betebeharra dute. Xedapen horren arabera, zehazki 203. artikulua araberako 199.3. artikuluari jarraiki, toki administrazioen betebeharra da dagozkion betearazpen aginduak ematea; hauen bidez, lur eremuen eta eraikuntzen jabeek horiek segurtasun, osasungarritasun eta apaingarri publikoko baldintza egokietan mantentzeko betebeharra ezartzen zaie.

4. Azkenik, komeni da gogoraraztea Urdulizko Udalak ez diola erakunde honi espediente hori izapidetzeko laguntzarik eman. Laguntza urri hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak lehentasuna emanik eta albait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan azaldu dugunaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.

Erreklamazioaren xedea eta aurreko ataletan adierazitako oharbideak ikusita, ondoko hauek helarazi behar dizkizuegu:

### **Ondorioak**

Azaldutako oharbideen argitan, ondorioztatu behar dugu Urdulizko Udalak erantzun arrazoitua eman behar diela hirigintzako araudian aurreikusitako prozeduren bidez aurkeztutako salaketei eta emaitza erreklamatzailerari jakinarazi behar diola.

Kasu honetan, gogorazten dizuegu bidezko neurriak hartu behar dituzuela zura biltegitzeko obra horietan hirigintzako legezko tasuna berrezarriko dela bermatzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 221. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorriz.

Horrez gain, dagokion administrazio espedientea izapidetu eta ebatzi behar duzue, lurzatiaren egoera egiaztatze aldera, eta, beharrezkoa bada, jabeari agindu segurtasun eta osasungarritasun baldintza egokiak bermatzeko beharrezkoak diren mantentze lanak egin ditzala.

Azkenik, salatu behar dugu Urdulizko Udalak ez duela Ararteko erakundearekin elkarlanean aritzeko jarrerarik izan, eta, hala, eragotzi egin duela Arartekoak, Eusko Legebiltzarreko goi komisario den aldetik, administrazioaren legez kanpoko ekintzak edo ekintza bidegabeak zuzentzen saiatzeko daukan betebeharra.